

ESKU-HUSKA. Azkoitiko pilota aukeraketan jendetza bildu zen atzo; pilotekin aitzakiarik ez

Asier Olaizola: «Eginahalak egingo ditut anaiak aukera bat izan dezan»


Bera sailkatuta dagoen arren, Titin-Zezeagari irabazita, Aimarrek sailkatzeko parada luke

Enekoitz Telleria | **AZKOITIA**

Azkoitiko Gurea frontoi erabe-rritu bikainean, partidu handi eta erakargarrien ikusmina nabaritzen zen atzo. Jendetza bildu zen Titin III.a-Zezeagak eta Olaizola I.a-Goñi III.ak egindako pilota aukeraketan. Jakina da azkoitiarrek pilotarenganako duten grina, eta *jakintsu* mordoxka agertu zen hitzordura. Binakako Txapelketako partidu erabakigarria da. Asier Olaizola eta Fernando Goñi sailkatuta daude finalerdietarako, galdu zein irabazi. Titin III.ak eta Joxemari Zezeagak bi aukera dituzte: biharko hori irabazi eta sailkatu; edo biharko galdu arren, igandean Capellan-Elkorok eta Olaizola II.a-Bernak Eibarren jokatu dutenaren zain gelditu. Han, noski, Olaizola II.a-Bernak galtzea beharko luke. Beraz, Asier Olaizolak Aimar anai gazteari mesedea egiteko proportzioa du bihar, Titin-Zezeagari irabazita. Era horretan, Aimarren esku geldituko litzateke igandean finalerdietara sailkatzea. «Garaipen bat baino gehiago dago jokoan. Sailkatuta gaude, baina nondik edo handik saiaturik naiz anaiak aukera bat izan dezan heldu den igandean. Badakit oso zaila dela, baina horretan saiaturik naiz», zioen atzo Asier Olaizolak.

Materialaren inguruan ez zen inolako aitzakiarik izan, ez Olaizola-Goñiren aldetik, ez Titin-Zezeagaren aldetik. Hori bai, lau protagonistek nabarmendu zuten Azkoitiko frontoiaren zorua «latza» dela eta pilota oso bizkor «jaten» duela. «Bestetan baino pilota sendagoak zeuden horregatik», argitu zuen Fernando Goñik.

Azken jardunaldia txapelketako partidurik jokatu gabe egin dute Olaizola I.ak eta Goñik, baina elkarren kontra aritu ziren igandean, Eibarren. «Atsedean aktiboa» primeran etorri zaiela onartu zuen Goñik, eta txapelketako «presiorik» gabe partiduak jokatzeko beti ongi etortzen dela berretsi zuen Olaizolak. Sailkapena lortuta duten arren, Asier bereziki motibatuta irtengo dela esan zuen Fernando Goñik. «Ni ere Asierren lekuan banengo agian besteetan baino gogo handiagoarekin irtengo nintzateke, anaiaren sailkapena ahalbidetzeko.



INAKI URANGA

Titin III.a, Asier Olaizola eta Fernando Goñirekin, atzo, Azkoitiko Gurea pilotalekuan.

HIRU AUKERAKETA GAUR

Retegi II.aren azken erabakia

Iruñean, Tafallan eta Eibarren egingo dira gaur Eskuz Binakako Txapelketako azken jardunaldiko beste hiru pilota aukeraketak. Hitzordu garrantzitsuenak, ordea, Iruñeko Labritekoa da (12:00). Bertan erabakiko du Julian Retegik heldu den larunbateko partidua jokatu duenetz. Eskuin belauneko pitzatuak ez dirudi eragozpen handiegia, eta Eratsungoak baietza emateko asmoa dauka. Jokin Errasti, eta Alustiza-Beloki ere Labriten izango dira. Tafallan (17:00), Tirapu-Armendariz eta Unanue-Ruizek dute pilota aukeraketa. Eibarren (16:00), Capellan-Elkorok eta Olaizola II.a-Bernak.

Gure artean ez dugu ezer komentatu, baina logikoa da».

Kontrarioen mailaz ohartuta, Asier Olaizolak garbi utzi zuen zein joko mota egingo duten: «Atzean dominatzea izango da gure helburua. Titinekin ezin da tontakeriatan ibili, baina pilota garbia edukita, Augustori ere erasora joka diezaioket».

Titin-Zezeagak onartu zuten Alberiten «erratu» egin zirela

Ez dute Titinek eta Zezeagak Olaizola II.a eta Bernaren hutsaren zain egoteko asmorik. Biharko irabazi eta sailkapena zuzenean nahi dute lortu. Atzo, oraindik, joan den igandean jasotako jipoia zuten gogoan —Olaizola II.a-Arroyorekin galdu zuten (8-22)—. Dena dela, Zezeagak bazuen gogoaren zain baita argitzeko: «Albe-

riten gehiegizko pilota bat zegoen. Lau koadro joaten zen, eta Aimarrek asko eman zion. Ez da inolako aitzakia, frontoi guztietan jokatu behar da, baina txapelketa serio bat leku serioetan jokatu behar da. Azkoitiko frontoi noblea da behintzat, frontoi batzuk badaude festetarako bakarrik balio dutenak». Badaki Zezeagak lan asko izango duela bihar eta partidua «nahasten» saiaturik direla dio «eta ea nahasmen horretan Titin irabazle irteten den aurrean».

Titinek ere onartu zuen «erratu» egin zirela Alberiten. «Guk geuk aukeratutako pilota batekin aritu ziren. Ez zen batera proposa gure ezaugarrien zat. Bikain aritu ziren, eta gu baino hobeto egokitu ziren frontoiaren ezaugarrietara»,

ESANAK

ASIER OLAIZOLA

(Aspeko aurrelaria)

«Garaipen bat baino gehiago dago jokoan»

FERNANDO GOÑI

(Aspeko atzelaria)

«Ni ere Asierren lekuan besteetan baino gogo handiagoarekin irtengo nintzateke»

TITIN III.a

(Aspeko aurrelaria)

«Irabaztea da gure aukera bakarra. Aukera dudan bakoitzeko sartuko naiz»

JOXEMARI ZEZEAGA

(Aspeko atzelaria)

«Ea partidua nahasten dugun, eta nahaste horretan Titin irteten den garaile»

zioen. Azkoitian bihar, aukera bakarra dutela: «Gure aukera bakarra irabaztea da. Aukera dudan guztietan sartuko naiz, bai Zezeagari laguntzera ere».

TXOKOAN

FEDERAZIOA

Ezohiko batzarra egingo da larunbatean, presidentea aukeratzeko

Euskadiko Pilota Federazioak ezohiko batzarra egingo du heldu den larunbatean, presidentea aukeratzeko. Batzarrerako bi deialdi egingo dira: 11:00etan bata eta 11:30etan bestea. Bozketaren ostean, presidente berriak 2000-2004 agintaldirako bere egitasmoen berri emango du. Jose Ramon Garai egungo presidentea da hautagai bakarra.

PALA

Txapelketako partiduek osatuko dute gaur, Deportivoen jaialdia

2. Mailako txapelketako partidu batekin hasiko da Bilbo-ko Deportivoen gaurko jaialdia, eta Lehen Mailako beste bi jokatu dira hurrena: Insausti-Garma eta Unda I.a-Garrido batean, eta Urkia-Rekalde eta Ziskar II.a-Torre bestean. Insausti-eta partidua bana galdu eta irabazi dituzte, eta Unda I.a-Garridok irabazi jokatu duten bakarra. Urkia-Rekaldek ere bat irabazi dute eta bat galdu. Ziskarrek-eta galdu egin dute jokatu duten bakarra.

ERREMONTEA

Finalaren aurreko jaialdia Galarretan

Larunbatean jokatu da Euskalen Binakako Txapelketako finala, eta hura bertu nahian edo jaialdi dotorea antolatu dute gaur Galarretan. Estelarrean, Ezkurra-Urretabizkaia II.a eta Altuna I.a-Lizaso ariko dira. Ezkurra txapeldunordea eta Lizaso txapelduna elkarren kontra ikusteko parada.

JAIALDIK

GAURKO PARTIDUAK

GALARRETA. 16:00.

Zalakain-Reklusa / Iturralde-Urko. Ezkurra-Urreta II.a / Altuna I.a-Lizaso. Matxin-Etxabe / Urreta I.a-Iriarte. Sarasua-Zandio / Zeberio I.a-Mendizabal.

DEPORTIVO. 17:00.

2. Mailako Txapelketakoa: Urkijo-Agitre / Egibar-Leunda. Lehen Mailako bi: Insausti-Garma / Unda I.a-Garrido. Urkia-Rekalde / Ziskar II.a-Torre.

BIHARKO PARTIDUAK

AZKOITIA. 22:30 (ETB1).

Titin III.a-Zezeaga / Olaizola I.a-Goñi III.a. Xala-Arroyo II.a / Etxaniz II.a-Imaz.

HERNANI. 22:00.

Oiaga / Martinez (lau t'erdian). 2. Mailako Txapelketakoa: Ensal-Mendia / Otaegi-Urretabizkaia.